

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko uztailaren 13ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 418/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Arabako Foru Aldundia ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea/ Red Vasca AntiRumores elkartean sartzea.

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 419/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Araban ekimenak garatzeko eta enpresa berriak sortzeko laguntza lerroa ematea (Ekin Araban 2021).

Foru Gobernu Kontseiluaren 420/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Baimena ematea Desarro- llo de Euskadi Socade, SA kapital sozietateari merkataritza sozietatean dituen akzioen partaidetza saltzeko eragiketa sinatzeko, bai eta mailegu bizia kobratzeko baldintza berriak onartzea ere.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 421/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Kontseiluaren uztailaren 15eko 442/2019 Erabakiaren bidez zerbitzu eginkizunetarako emandako atxikipena luzatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 422/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Banur Solucio- nes Comerciales, SLri adjudikatzea Laudioko Alberto Acero kaleko 8. zenbakian dagoen lokala egokitzeko obrak, Arabako Foru Aldundiaren bulegoetarako. Esleipenaren zenbatekoa 411.891,10 eurokoa da, BEZa barne, eta gauzatzeko epea 22 astekoa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 423/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Arabako enpre- setan kontratazioa sustatzeko laguntzen 2020rako ekitaldirako deialdiaren ebazpena, uztailaren 28ko 352/2020 Erabakiaren bidez onetsia.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 424/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak hala eskatuta, 16/2021 konpromiso kreditua 2021eko urterotik 2023kora birbanatzeko espedientea, 54.450,00 euroko zenbatekoarekin, gastuen egoeraren "Egitura azterkeak" partidari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 425/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea, Bide Azpiegitu- ren eta Mugikortasunaren Sailak hala eskatuta, 82/2021 kreditu transferentziaren espedientea, 99.729,80 euroko zenbatekoarekin, "Errepideen kontserbazioa" eta "Kontserbazioa eta Neguko bidezaintza" partidak funtsez hornitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 426/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea, Nekazaritza Sailak hala eskatuta, 83/2021 kreditu transferentziaren espedientea, 50.000,00 eurokoa, "Kreditu Orokorra" partidara bideratzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 427/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea, Nekazaritza Sailak eskatuta, 84/2021 kreditu transferentziaren espedientea, 622.000,00 euroko zenbatekoarekin, "A Plana. Nekazaritza Sektoreari Laguntzeko Neurriak" partida funtsez hornitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 428/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hala eskatuta, 88/2021 kreditu transferentziaren espedientea, 93.472,50 euroko zenbatekoarekin, "SAS Lizentziak mantentzea" izeneko partida sortu berria funtsez hornitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 429/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Araba Garapen Agentzia SA sozietateak erabakitako kapital gehikuntzan parte hartzea 312.000 euroko zenbatekoarekin.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 430/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea dirulaguntza osagarria ematea Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2018-2019 deialdiko erakunde onuradunei, edateko uraren hornidurarako (behe sarea), saneamendurako eta hondakin uren arazketarako jarduketak egitea jasota zuten proiektuetarako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 431/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Zurbaoko Administrazio Batzarreko kide kudeatzailea izendatzea.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 432/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea "46,67 kilometrotik (Done Bikendi Haraneko hiri zonaren bukaera) 48,75 kilometrora eta 49,82 kilometrotik 55,98 kilometrora (A-132ko bidegurutzea, Santikurutze Kanpezun) A-2128 errepidearen trazadura hobetzeko eta plataforma zabaltzeko eraikuntza proiektua"ren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda.

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 433/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Kuartangoko Udalarari zuzeneko dirulaguntza ematea, Kuartangoko estazio megalitikoaren balioa nabarmentzeko proiektua elkarrekin finantzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 434/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Arkaiako Administrazio Batzarrari zuzeneko dirulaguntza ematea, Arkaiako termen aztarnategi arkeologikoaren balioa nabarmentzeko eta zabaltzeko proiektua elkarrekin finantzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 435/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea kirol klub eta elkarteentzako dirulaguntza lerro baten deialdia, 2020-2021 denboraldiko kadete eta gazteen 2020-2021 joan-etorrietarako.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 436/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan paperaren eta kartoiaren gaikako bilketa egiteko kontratuarekin jarraitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 437/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan papera saltzeko/birziklatzeko kontratuarekin jarraitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 438/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Arabako Foru Aldundiak kudeatutako garbiguneetatik hondakinak garraiatzeko kontratuarekin jarraitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 439/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Arabako Foru Aldundiak kudeatzen dituen instalazioetatik datozen hondakin ez arriskutsuak kudeatzeko kontratuarekin jarraitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 440/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea zehapena ezartzea, Arabako landa eremuko garbiguneen sarea ustiatzeko eta mantentzeko zerbitzuaren kontratua epearen barruan ez formalizatzegatik.

Foru Gobernu Kontseiluaren 441/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea Enargi Araba, SA sozietate publikoari 720.060 euroko transferentzia egitea, sei kooperatiba eratzeko eta kontratuak izenpetzeko.